

BALIO PROPOSAMENA

Planetaren kutsadura murrizteko proiektu bat da. Pertsonak dira ekintza hau gauzatzen dutenak, baina hauek motibatzeke pizgarria da gure proiektua. Proiektu honekin pertsonak zaborra birziklatzera animatzen ditugu eta, beraz, planetak dituen kutsadura arazoak murrizten lagunduko du proiektuak. Gure produktua berria da, ez da inoiz horrelako produktu bat ikusi merkatuan. Gainera, erabiltzeko oso erraza da, txartel bat pasatzen duzu birziklatzen duzun bakoitzean eta puntuak irabazten dituzu txartel horren bidez, behin sari bat lortzeko puntu nahiko dituzunean email bat iristen zaizu eta saria irabazteko aukera duzu.

WasteHero-ren berezitasuna da birziklatzea inoiz baino errazago eta motibagarriago bihurtzen duela. Gure edukiontziak ez dira ohikoak: barruan duten sistemak jakin dezake zein hondakin mota sartu den, eta erabiltzaileak ez du horretaz kezkatu behar. Horrek birziklatzea askoz errazagoa egiten du, denentzat ulerterraza. Baina gainera, WasteHerok birziklatzea saritzen du: aplikazioak erabiltzaileari puntu eta abantailak ematen dizkio, eta horrek jendea gehiago animatze du parte hartzera.

Udal eta erakundeentzat, beste puntu garrantzitsua da edukiontziek ematen duten informazioa oso lagungarria dela. Jakinarazten dute inoiz dauden beteta edo noiz dagoen arazo bat, eta horri esker bilketak modu eraginkorragoan antolatu daitezke eta denbora eta dirua aurreztu. Horregatik, bezeroek WasteHero aukeratzen dute: birziklatzea errazten duelako, jendea parte hartzera bultzatzen duelako eta, aldi berean, hirientzat eta erakundeentzat lanean izugarri laguntzen duen tresna delako. Produktu oso eta praktikoa bat da, eta horregatik merezi du inbertsioa.

WasteHero proiektua birziklatzea errazago, segurua eta motibagarriago bihurtzen duen soluzio berritzailea da. Edukiontzi adimentsuek automatikoki identifikatzen dute hondakin mota, eta aplikazioak erabiltzaileak saritzen ditu puntu eta abantailak emanez, parte hartzea handituz eta pertsonalizazioa eskaintzen. Horrela, proiektuak berritasuna, pertsonalizazioa, erabilerraztasuna eta prestazio handiak eskaintzen ditu.

Udal eta erakundeentzat, informazio adimentsuak bilketak errazten ditu, arriskuak murriztuz eta baliabideak hobeto kudeatuz, eta edukiontzien diseinu erakargarria kalitatea eta marka nabarmendu egiten ditu.

WasteHero-ren balio-proposamena argia da: birziklatzea errazten du, pertsonak motibatzen ditu eta erakundeentzako kudeaketa eraginkorra eskaintzen du, prezio justuan. Produktu praktikoa honek balio handia sortzen du erabiltzaile, udalen eta ingurumena zaintzen dutenentzat, eta horregatik merezi du inbertsioa.